MANKOMUNITATEKO DATUAK KUDEATZEKO HODEIKO INFORMATIKA-ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA

AURKIBIDEA

I.- ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1.- KONTRATUAREN XEDEA
2.- KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA
3.- KONTRATUAREN IRAUPENA
4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN AURREIKUSITAKO BALIOA
5.- KONTRATUAREN PREZIOA
6.- FINANTZAZIOA
7.- ORDAINKETA ARAUBIDEA
8.- PREZIOAK BERRIKUSTEA
9.- BEHIN BETIKO BERMEA

II.-- KONTRATATZEKO PROZEDURA

10.- ADJUDIKATZEKO PROZEDURA
11.- LIZITAZIO ELEKTRONIKOA
12.- JAKINARAZPENAK ETA MEZUAK
13.- KONTRATATZEKO GAITASUNA
14. - ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK
15.- KONTRATAZIO MAHAIA
16.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK ETA PLEGUETARAKO SARBIDEA
17.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA
18.- AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKI ETA TRATATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA
19.- ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA
20 - KONTRATUA EZ EGITEKO ETA PROZEDURARI UKO EGITEA

III.- KONTRATUA EGIKARITZEA

21.- KONTRATUA EGIKARITZEKO ARAUBIDE OROKORRA
22 . - KONTRATUAREN ARDURADUNA
23 . - KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK
24.- KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK
25.- KONTRATUA GAUZATU BITARTEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEI DAGOKIENEZ KONTRATISTAK DAUKAN ERANTZUKIZUNA
26.- KONTRATUAREN ALDAKETAK
27.- DATU PERTSONALEN BABESA
28.- LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA
29.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK
30.- LANAK HARTZEA ETA BERME EPEA
31.- KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZAR DAKIZKIOKEEN ZIGORRAK
32.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK
33.- AZPIKONTRATAZIOA

IV- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

34.- KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA
35.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK
36.- ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

I. ERANSKINA: LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPENAK ETA MEZUAK JASOTZEKO DATUAK

II. ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
III. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA

I. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honetan oinarrituta egiten den kontratuaren xedea izango da zerbitzu informatikoak ematea hodeian (cloud computing), Mankomunitateko datuak osorik kudeatzeko, batez ere, enplegu eta enpresa arloari lotuta daudenak, agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian zehaztutako baldintzetan.

Kontratu honen xedea lote bakar gisa konfiguratuta dago. Kontratazio espedientean jasotako Memoria Teknikoan (Hasierako Txostena) jaso dira loteetan ez banatzearen arrazoiak.

CPV kodea: 72222300-0 (Informazioaren teknologiako zerbitzuak).

2. KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Kontratazio espedienteko memoria teknikoan azaltzen dira Mankomunitate hau plegu honetan aipatzen den kontratua egitera eraman duten arrazoiak.

3. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honek urtebeteko iraupena izango du, sinatzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta urtero luzatu ahal izango du kontratazio organoak beste urtebetez, gehienez ere lau urtez, hasierako epealdia barne. Luzapena derrigorrezkoa izango da kontratistarentzat, betiere kontratuaren iraupen aldia amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago ohartarazten bada.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN AURREIKUSITAKO BALIOA

1.- Kontratu honen prezioa zehazteko sistema oroharreko prezioa izango da.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 5.082 eurokoa da urtean, honako xehetasun honen arabera:

Urteko lizitazioaren zenbatekoa (BEZa kanpo)	Aplikatu beharreko BEZ tasa: %	Urteko lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZa barne)
4.200 €	% 21	5.082 €

Aurrekontu hau beherantz hobetu ahal izango dute lizitatzaileek.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 100.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, aurrekontu hori honela banakatzen da, gastu orokorrak eta industria-mozkina barne, BEZik gabe:

- Langileen kostuak: 3.200,-€
- Zuzeneko beste kostu batzuk: 350,-€
- Zeharkako kostuak: 400,-€
- Beste gastu batzuk: 250,-€

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia 16.800 eurokoa da, urtean 4.200 eurokoa.

5.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa adjudikaziotik eratorritakoa izango da. Kontratuaren prezioan txertatutakotzat joko dira aplikatu beharreko edonolako kanonak, tasak eta zergak, bai eta pleguetan jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz adjudikaziodunarentzat sortzen diren gastu guztiak ere.

6.- FINANTZAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, Informatika Zerbitzua partida erabiliko da, (2023ko ekitaldiko aurrekontuan, 1 0100.227.241.00.04 2023 partida dena), eta 2024.ean 1 0100.227.920.00.12 2024 izendatuko den partidan dago aurreikusita finantzazioa. Modu berean, aurrekontu arloan eskumena daukan organoak kreditu egokiak gorde behar ditu etorkizuneko ekitaldietan ukitzen diren aurrekontuetan.

7. ORDAINKETA ARAUBIDEA

Kontratuaren prezioa sei hilean behin ordainduko da, dagokion faktura aurkeztu eta onartu ondoren.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 198. artikuluan aurreikusitako epeen barruan ordainduko dira fakturak.

Bat etorriz SPKLren 32. xedapen gehigarriarekin, eta dagozkion fakturetan jaso dadin, adierazten da kontabilitate publikoan eskumenak dituen administrazio organoa eta Kontratazio Organoa eta unitate hartzailea Beterri Buruntza Mankomunitatea dela.

Faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legearen arabera, fakturak elektronikoki aurkeztu beharko dira. Faktura elektroniko horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sarrera Puntu Orokorraren bidez bidaliko dira.

8. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan prezioak ez dira berraztertuko, bat etorriz SPKLren 103.1 artikuluarekin.

9. BEHIN BETIKO BERMEA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159.6.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, ez da behin betiko bermerik eskatzen.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

10. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

Kontratu honen adjudikazioa prozedura ireki erraztuaren bidez egingo da, bat etorriz SPKLren 159. artikuluko 6. atalean aurreikusitakoarekin. Izapidetzeko, lege horretan jasotako jarduketak eta horiek garatzeko arauak jarraituko dira.

11. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hori baliabide elektronikoen bidez izapidetuko da, bat etorriz Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen xedapenekin. Ondorioz, Mankomunitateak lizitatzaileekin izango duen harremana ere bide horietatik izango da.

12. JAKINARAZPENAK ETA MEZUAK

Espediente honekin lotutako jakinarazpen eta mezu guztiak elektronikoki egingo dira.

13. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Pertsona natural nahiz juridikoek kontrataziorako prozedura honetan parte hartu ahal izango dute, jarduteko gaitasun osoa eta gaitasun juridiko osoa badute eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala badute. Gainera, ezin izango dira SPKLren 71. artikuluak kontratatzeko ezartzen dituen debekuetako batean ere sartuta egon.

Bat etorriz SPKLren 159.4 artikuluan ezarritakoarekin, aurkezten diren lizitatzaile guztiak egon behar dira inskribatuta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan.

14. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

SPKLren 146.1. artikuluari jarraiki, kontratu hau esleitzeko esleipen-irizpide bakarra erabiliko da, prezioa.

Lizitazio honetarako adjudikazio-irizpide bakarra prezioa da. Eskaintzarik onena preziorik baxuena duena izango da. Prezioa ebaluatzeko, formula hau erabiliko da:

P= Min/Eskaintza

Non:

P: Eskuratutako puntuazioa
Min: Eskaintza ekonomiko baxuena
Eskaintza: Baloratzen den eskaintza

Lehen definitutako zuzena lortzeko, onartutako oinarrizko eskaintzak soilik hartuko dira kontuan.

Ezohiko beherapenak dituzten eskaintzen ondorioz bete ezin diren proposamenak antzematea ahalbidetuko duten muga honakoa izango da: eskaintzen batezbestekoa baino % 20 handiagoa den beherapena.

15. KONTRATAZIO MAHAIA

Kide hauek osatuko dute Kontratazio Mahaia:

- Lehendakaritza:
    - Mankomunitateko Lehendakaria
- Mahaikidea:
    - Mankomunitateko behin-behineko Zuzendaria
- Idazkaria:
    - Mankomunitateko behin-behineko Idazkari-Kontuhartzailea.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK ETA PLEGUETARAKO SARBIDEA

Lizitazio hau Mankomunitate honetako kontratatzailearen profilean iragarriko da. Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren barruan dago.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira adierazitako Plataformaren bidez, 10 egun balioduneko epean, iragarki hori agertzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Mankomunitate honen kontratatzailearen profilera helbide honen bidez sartu ahal izango da: www.beterriburuntza.eus. Leku horretan bertan pleguak eta dokumentazio osagarria eskuratu ahal izango dira.

Lizitatzaileek pleguei edo agiri osagarriei buruz bestelako informaziorik eskatzekotan, eskaintzak jasotzeko ezarri den azken eguna baino sei egun lehenago emango da, betiere eskaintzak jasotzeko ezarri den epe hori amaitu baino hamabi egun lehenago gutxienez egin bada eskabidea.

Bat etorriz SPKLren 136.2 eta 3. artikuluan xedatutakoarekin, pleguei buruzko informazio gehigarria edo dokumentazio osagarria ezin izan denean adierazitako epeen barruan aurkeztu, edo eskaintzak lekuan bertan egindako bisita baten ostean edo pleguari erantsitako dokumentazioa *in situ* kontsultatu ostean soilik egin daitezkeenean, eskaintzak jasotzeko epea komeni bezain beste luzatuko da. Hala, hautagai guztiek eskaintzak egin ahal izateko beharrezko informazio guztiaren berri izango dute.

Lizitazio prozedura honetan ez dira onartuko deskribatutako bide elektronikoetatik aurkezten ez diren eskaintzak. Ondorio horietarako, nahitaezko baldintza da Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman edo Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman izena emandako erabiltzailea izatea.

Eskaintza bateko dokumentuetako edozein ezin bada behar bezala ikusi, baimenduko da lizitatzaileak formatu digitalean aurkeztea akasdun fitxategian txertatutako dokumentua, betiere 24 ordu igaro baino lehen. Geroago aurkeztutako dokumentuak ezin izango du inolako aldaketarik izan eskaintzan sartutako jatorrizkoarekiko. Kontratazio organoak egiaztatzen badu dokumentuak aldaketak izan dituela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenak Administrazio Baldintza Berezien Plegu honetan aurreikusitakora egokitu behar dira, eta horiek aurkezteak dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula edo baldintza horiek, salbuespen edo erreserbarik gabe, eta Mahaiari eta Kontratazio Organoari baimena ematea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Halaber, ezin izango du aldi baterako enpresa elkartean antolatuta proposamenik sinatu bakarka sinatu badu, ez eta behin-behineko elkarte batean baino gehiagotan ageri ere. Arau horiek urratuz gero, lizitatzaileak sinatutako proposamen bat ere ez da onartuko.

Informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak eta adjudikazioa iragartzearen inguruan eta hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz SPKLren xedapenek diotena baztertu gabe, hautagai eta lizitatzaile horiek eskaintzarekin igorritako informazio zehatz bat isilpekoa dela adierazi ahalko dute, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialak eta eskaintzaren alderdi konfidentzialak aipatzen direnean. Mankomunitateak ezin izango du informazio hau zabaldu dagokion lizitatzailearen baimenik gabe.

17. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA

Lizitatzaileek **GUTUN-AZAL ELEKTRONIKO BAKARRA** aurkeztu beharko dute, bat etorriz plegu honetako I. eranskinean zehaztutako jarraibideekin. Gutun-azal hori lizitatzaileak edo horren ordezkariak sinatuta egon behar da, eta jarraian xehatutako edukia izan behar du.

GUTUN-AZAL ELEKTRONIKO BAKARRA.- "GAITASUNA, KAUDIMENA ETA ESLEIPEN IRIZPIDEAK"

Gutun-azal horrek honako dokumentu hauek izango ditu:

a) Gaitutako helbide elektronikoa.

Gaitutako helbide elektroniko bat aukeratzea, bat etorriz SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin. Helbide horretan egingo dira kontratazio espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak. (I. eranskinaren gehigarria)

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 159.4.c) artikuluan aurreikusitako edukiarekin. (Plegu honen II. eranskina).

Hala ere, Kontratazio Mahaiak edo Organoak, prozedura ondo amaitu dadin bermatze aldera, adjudikazioaren aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du lizitatzaileek kontratuaren adjudikaziodun izateko plegu honetan jasotako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentuak aurkez ditzaten.

c) Eskaintza aldi baterako enpresari elkarte batek (ABEE) aurkeztuz gero, kideetako bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Horrez gain, kontratuaren adjudikaziodun suertatzekotan ABEEa formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, eta ABEE horretan bakoitzak izango duen partaidetza, egoera eta izenak zehaztu beharko dituzte.

d) Automatikoki baloratzeko irizpideei buruzko dokumentu hauek:

Plegu honen III. eranskinean jasotako ereduaren araberako proposamen ekonomikoa.

18. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKI ETA TRATATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

Proposamenak aurkezteko epea gainditu ondoren, honako jarduera hauek burutuko dira:

1º.- GUTUN-AZAL ELEKTRONIKO BAKARRA IREKITZEA

Kontratazio Mahaiak, ekitaldi publikoan eta gutxienez 48 orduko aurrerapenarekin kontratatzailearen profilean argitaratzen den leku, egun eta orduan, gutun-azal elektroniko bakarra irekiko du eta bertan sartutako informazioa, kontratu hau eskuratzeko baldintzei lotutakoa, egiaztatuko du, eta eskaintza ekonomikoaren datuak ezagutaraziko ditu.

SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, mahaiak zuzendu daitezkeen akatsak antzematen baditu aurkeztutako dokumentuetan, ukitutako lizitatzaileei jakinaraziko die, eta hiru egun naturaleko epea emango die akats horiek zuzendu ahal izateko.

Gainera, lizitatzaileei jakinarazten zaizkien zuzentzeko eskaerak Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman ere iragarriko dira.

Ekitaldi horren ondoren, baina bilkura berean, Mahaiak honako jarduera hauek egingo ditu:

1.- Pleguko baldintzak eta eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertzea, halakorik balego.

2.- Automatikoki ebaluatu daitezkeen edo kuantifikatu daitezkeen irizpideak baloratzea, horretarako formulak erabiliz.

3.- Eskaintza bakoitzak lortutako guztizko puntuazioa ezartzea eta handienetik txikienera sailkatzea.

4.- Adjudikazio proposamena puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen alde egitea.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez dakar proposatutako lizitatzailearen aldeko inolako eskubiderik, eta ez ditu horiek eskuratuko, administrazioaren aurrean, harik eta kontratua formalizatu arte.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintzak ezohiko beherapenak dituela sumatzen bada, 149. artikuluan aurreikusitako egoerak gertatzen direlako, mahaiak artikulu horretan aurreikusitako prozedura jarraituko du, baina lizitatzaileak bere eskaintza justifikatzeko gehieneko epea ezin izango da izan bost egun baliodun baino handiagoa izan, dagokion jakinarazpena bidaltzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Aipatutako hori guztia espedientean jasoko da, nahitaez zabaldu beharko diren kasuan kasuko akten bidez.

5 - Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean sartzea eta, kontratua adjudikatzeko proposatutako lizitatzaileari dagokionez, izaerari, gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko datuak egiaztatzea.

6 - Kontratua adjudikatzeko proposatutako lizitatzaileari jakinarazpen elektroniko bidez honako errekerimendu hau egitea: jakinarazpena bidali den egunetik hurrengo zazpi egun baliodunen barruan egin ditzan jarduketak edo aurkez ditzan jarraian adierazitako dokumentuak:

a. Lizitatzaileari beharrezko baliabideak emango dizkioten erakundeen konpromisoa aurkeztea, bat etorriz SPKLren 75.2 artikuluan aurreikusiarekin.

b. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen dituela adierazten duen dokumentazioa aurkeztu edo kontratazio organoa baimendu horretarako ziurtagiria zuzenean lortzeko.

Atal honetan aipatutako errekerimenduaren ostean aurkeztutako dokumentazioak zuzen daitezkeen akatsak baditu, hiru egun naturaleko epea emango da horiek zuzentzeko. Bada, hori zuzenean jakinaraziko zaio lizitatzaileari, eta Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da.

2º.- ERREKERIMENDUA EZ BADA BETETZEN

Adjudikaziodun gisa proposatutako hautagaiari dokumentuak aurkezteko emandako epearen barruan horiek aurkezten ez baditu, puntuazio zerrendako hurrengo hautagaiaren aldeko adjudikazio proposamena egingo da, eta dagokion epea emango zaio aipatutako dokumentuak aurkezteko.

19. ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio Organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan erabakiko du kontratua lehenengo sailkatuari adjudikatzea, SPKLren 150.3 artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Esleipena lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta erakunde honetako kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatuz egingo da eta, hala, agiri hori edozein erregistro publikotarako sarbidea

izateko titulu nahikoa izango da. Hala ere, kontratistak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publikotzat jo dadin, dagozkion gastuak haren kargura izanik.

Hala badagokio, 15 egun balioduneko epean, adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, kontratua administrazio dokumentu gisa formalizatu behar da. Bestela, 159.6.g)n xedatutakoari jarraiki, nahikoa izango da adjudikazio ebazpena kontratistak sinatzearekin.

20. KONTRATUA EZ GAUZATZEKO ERABAKIA ETA PROZEDURARI UKO EGITEA

Bat etorriz SPKLren 152. artikuluan aurreikusitakoarekin, kontratazio organoak, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak tarteko, kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du. Horrez gain, prozedurari uko egin ahal izango dio kontratua prestatzeko arauak edo adjudikatzeko prozesua arautzen dutenak urratzen badira eta arau-hauste hori konpondu ezin bada. Kontratua ez egiteko nahiz prozedurari uko egiteko erabakiak kontratua formalizatu baino lehen hartu behar dira, eta bat etorri behar dira aipatutako artikuluan ezarritako baldintzekin.

III. KONTRATUA EGIKARITZEA

21. KONTRATUA EGIKARITZEKO ARAUBIDE OROKORRA

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara egikarituko da, plegu honetan eta baldintza teknikoen pleguan bildutako baldintzei lotuta, Mankomunitatearen zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean. Mankomunitateak eskumen horiek idatziz zein ahoz baliatuko ditu.

Kontratistari edo bere mendeko pertsonei egozteko moduko ekintza edo hutsegiteen ondorioz arriskuan ipintzen bada kontratua behar den moduan betetzea, horretarako beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea eskatu ahal izango du Mankomunitateak.

22. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratua adjudikatzeko erabakian Mankomunitateko teknikari bat izendatuko da kontratuaren arduradun gisa, eta kontratuaren egikaritzeari buruzko jarraibideak emateko eta berrikusteko ahalmenak izango ditu.

23. KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202.1 artikuluan aurreikusiarekin bat etorriz, kontratu hau egikaritzeko honako egikaritze baldintza berezi hauek exijituko dira:

Gizarte arlokoak:

Kontratu honek bete egin behar ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak.

Lizitatzaileek kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko dute, adjudikaziodun izanez gero.

Era berean, kontratua esleitu ondoren langile horiei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute.

Kontratua gauzatzen den bitartean, esleipendunak langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.

Baldintza horiek funtsezko kontratu betebeharraren izaera dute, eta, SPKLren 201. artikuluaren arabera, betebeharra ez betetzeak kontratua bertan behera uztea eragin dezake, aipatutako Legearen 211.1.f) artikuluaren ondorioetarako.

24. KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK

Kontratistak une-oro izan beharko ditu beharrezko langileak, eskatutako kualifikazioa dutenak, Baldintza Teknikoen Pleguan zehaztutako lan guztiak egin ahal izateko. Ezin izango du langile falta argudiatu kontratatutako zerbitzuak eten edo atzeratzeko; hala, une-oro eskura izan beharko du zerbitzu horiek gauzatzeko beharrezko den guztia, adjudikazioaren prezioan eraginik izan gabe.

Kontratista behartuta dago lan arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzera, gizarte-segurantzakoak nahiz laneko osasun eta segurtasunari buruzkoak, bai eta aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren araberako soldata baldintzak ere. Hori guztia kontratu honen xede diren zerbitzuetan enplegatzen dituen langileei dagokienez. Mankomunitatea salbuetsita egongo da urratze horren erantzukizunetik.

25. KONTRATUA EGIKARITU BITARTEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAK DAUKAN ERANTZUKIZUNA

Bat etorriz, SPKLren 196. artikuluan xedatuarekin, kontratua betetzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei kalte-galerak sortuz gero, kontratista izango da horien erantzule.

26. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Mankomunitateak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiei jarraikiz, SPKLren 205. artikuluan berariaz aurreikusitako egoeretariko bat gertatzen denean, baldin eta lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Lehen aipatutako balizko aldaketak kontratistarentzat nahitaezkoak izango dira barne hartzen badute, isolatuta edo multzoan, zenbatekoaren aldaketa bat, ez duena kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 gainditzen, BEZa kanpo. Aldaketa kontratistarentzat nahitaezkoa ez denean, zenbatekoa dela eta, aldaketa horrek kontratistaren berariazko adostasuna exijituko du.

27. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratistak kontratu hau gauzatzean Mankomunitatearen kontura eskuratuko dituen datu pertsonalen tratamenduaren helburua izango da Mankomunitateko datuen kudeaketa integrala.

Kontratistaren betebeharra da SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarrian, eta gainerako datuen babesari buruzko nazio-araudian eta Europar Batasunekoan xedatzen dena betetzea.

Enpresa esleipendunak, kontratua formalizatu baino lehen, deklarazio bat aurkeztu beharko du jakinaraziz zerbitzariak non egongo diren kokatuta eta nondik emango diren beraiekin loturiko zerbitzuak, eta kontratua indarrean dagoen bitartean edozein aldaketaren berri eman beharko dio Mankomunitateari.

Lizitatzaileek bere proposamenean adierazi beharko dute zerbitzariak edo beraiekin loturiko zerbitzuak azpikontratatzea aurreikusten duten, enpresaren izena eta profila.

Kontratua dela-eta ateratzen edo eskuratzen diren dokumentuak eta informazioa konfidentzialak izango dira eta ez dira inolako bitarteko edo euskarriren bidez ez osorik ez partzialki erreproduzitu ahal izango; ez dira tratamendu edo edizio informatikoaren xede izango eta ez zaizkie hirugarrenei transmitituko beren zuzeneko exekuzio eremu mugatutik kanpo, ezta kontratu honen esleipendun den erakundeak dituen edo izan ditzakeen langileen artean ere.

Kontratuaren esleipendun den erakundearen eta bertako langileen betebeharra da eskuragarri duten informazio guztia erabateko sekretupean gordetzea eta informazioaren konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko zehazten diren neurri tekniko eta antolaketa neurri guztiak betetzea. Izenpetutako kontratutik eratorriko lotura amaitu eta iraungi eta gero ere, betebehar horiek bete egingo dira.

Betebehar hauek funtsezko kontratu betebeharraren izaera dute, aipatutako Legearen 211.1.f) artikuluaren ondorioetarako.

28. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Enpresa esleipendunak laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudi juridikoa eta teknikoa beteko du. Beterri Buruntza Mankomunitateak, enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez, lan-arriskuen prebentzioaren arloan behar den dokumentazioa eskatuko dio enpresa esleipendunari.

29. HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan ezarria, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea nahiz hura garatzen duten arauak. Besteak beste, EAEko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua.

Enpresa adjudikaziodunak Beterri Buruntza Mankomunitatearekin izan ditzakeen harreman idatziak nahiz ahozkoak (kontratuak, fakturak, txostenak, bilerak, kontsultak, eta abar) lantoki honetako lanerako hizkuntzara egokituko dira eta, horrenbestez, euskaraz izango dira edo, hala onesten bada, hizkuntza bietan.

Kontratua sustatzen duen administrazio unitatea izango da bertan ezarritako hizkuntza baldintzak betetzearen jarraipena egingo duena, gainerako baldintzen jarraipenaren antzera eta antzeko epeekin.

Baldintzen plegu honetan jasotako hizkuntza baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharra dira, eta horiek ez betetzeak gainerako baldintzen ondorio berdin-berdinak izan ditzake, hau da, zigorrak aplikatzea edo suntsiaraztea.

30. LANAK HARTZEA ETA BERME EPEA

Kontratuaren xedea den prestazioa bukatu eta gehienez ere hilabeteko epean, jasotzeko ekitaldi formal eta positiboa egingo da.

URTEBETEKO berme epea ezartzen da, kontratua hartzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori berme gisa finkatzen da SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean aurreikusitako ondorioetarako. Epe horretan, kontratista egindako lan edo zerbitzuetan ager daitezkeen akats edo hutsuneen erantzulea izango da.

Epe hori administrazioak oztoporik jarri gabe igaro ondoren, erantzukizunetik aske geratuko da kontratista.

31. KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZAR DAKIZKIOKEEN ZIGORRAK

A. Kontratua egikaritzeko epeak ez betetzea

Kontratista, berari leporatu ahal zaizkion arrazoiak direla medio, kontratua betearazteko epea betetzen atzeratuz gero, epe osoan zein, hala badagokio, epe partzialetan, administrazioak kontratua bertan behera utzi ahalko du, eta bermea galdu, edo zigorrak ezarri ahalko ditu; zigorrak 0,60 eurokoak izango dira eguneko, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko tarte bakoitzeko, BEZa kanpo.

Atzeratu izanaren ondorioz ezarriko diren zigorrak kontratuak daukan prezioaren %5en multiploak badira, Kontratazio Organoak eskumena edukiko du kontratua suntsiarazteko; bestela, horrekin segitzea eta beste zigor batzuk ipintzea erabaki dezake.

B. Prestazioen egikaritzea partzialki ez betetzea

Berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratistak kontratuan definitutako prestazioen zati bat betetzen ez duenean, administrazioak bi aukera izango ditu: suntsiaraztea edo zigorrak jartzea. Zigorra kontratuaren prezio guztiaren ehuneko 10 izango da.

C. Oker burutzea

Prestazioa oker burutzen bada, administrazioak zigorrak jarri ahal izango ditu, eta horietako bakoitzaren zenbatekoa ezin izango da izan kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino handiagoa, BEZa kanpo. Zigor horien guztizko zenbatekoak ezin izango du negoziatutako prezioaren ehuneko 50 gainditu.

D. Ingurumenari, gizarteari edo lanari buruzko betebeharrak ez betetzea

Ingurumenarekin, arlo sozialarekin edo lan arloarekin lotuta kontratistak dituen betebeharrak bete ezean, bereziki soldaten ordainketan behin eta berriz atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako soldata baldintzen aplikazioa larria eta dolozkoa bada, Mankomunitateak, SPKLren 201. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, zigorrak jarri ahal izango ditu, eta horietako bakoitzaren zenbatekoa ezin izango da izan kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino handiagoa, BEZa kanpo. Zigor horien guztizko zenbatekoak ezin izango du negoziatutako prezioaren ehuneko 50 gainditu.

E. Azpikontratatzaileekiko betebeharrak ez betetzea

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoa gorabehera, kontratatzaileak ez baditu betetzen azpikontratatzaileekiko dituen betebeharrak, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu. Zigorra kontratuaren prezio guztiaren ehuneko 10 izango da, BEZa kanpo, eta zigor horien guztizko zenbatekoak ezin izango du negoziatutako prezioaren ehuneko 50 gainditu.

32. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan ezarritako arrazoiengatik suntsiarazi ahal izango da zerbitzu kontratua.

33. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du prestazio honen emakida partziala. Edonola ere, azpikontratazio hori Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetako baldintzak betetzearen mende egongo da.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

34. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu hau oinarri hartuta egiten den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta plegu honen eta baldintza teknikoen pleguaren bidez arautuko da. Bertan aurreikusten ez den guztiari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituko zaio, eta lege horrekin kontraesanik ez duen guztiari dagokionez, honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araubide Orokorrean (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsian), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuan (horren bidez garatzen da partzialki Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikagarri diren gainerako arauetan.

Administrazio Baldintza Berezien Plegu honen eta espedienteari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak badaude, plegu honetan xedatutakoa nagusituko da.

35. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari dagozkio kontratua interpretatu, betetzeko orduan sortzen diren zalantzak ebatzi, interes publikoa dela eta aldatu, kontratuaren egikaritzeagatik kontratistari egotzi ahal zaion erantzukizuna aitortu, egikaritzea eten, suntsiaraztea erabaki eta horren ondorioak zehaztea, betiere SPKLk eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak ezarritako mugen eta horien baldintza eta ondorioen arabera.

36. ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

Kontratu honetatik eratorri daitezkeen gai eztabaidagarriak Kontratazio Organoak ebatziko ditu. Organo horren erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean zuzenean aurkaratu ahal izango dira. Hori guztia gorabehera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60.era artekoek araututako kontratazioaren arloko errekurtso berezia jarri ahalko da, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako beste edozein.

I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMA.

1. Kontratatzeko prozeduraren izapideetarako (dokumentuak bidaltzea, kontratua sinatzea, jakinarazpenak jasotzea...) lizitazio elektronikoko sistema erabiltzeko baldintzak

1.1. Administrazio baldintzak:

a) Izapidetze elektronikorako Beterri Buruntza Mankomunitateak baimendutako ziurtagiri digitala izatea. Gaur egun ziurtagiri elektroniko horiek honako hauek dira:

- Izenpe (Entitatea, Herritarra, Entitatearen ordezkaria).
- FNMT (Entitatea, Herritarra, Entitatearen ordezkaria).
- e-NAN
- Camerfirma (entitatea, herritarra)

b) Horrelako egoeraren batean egotea:

a) Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta emanda izatea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea

b) Lizitazio elektronikorako aldi bateko gaikuntza sisteman alta emanda izatea.

c) Operadore ekonomiko bi edo gehiago elkarrekin aurkezten badira lehiaketara, modu formalean ABEE gisa eratzeko konpromisoarekin, ABEEren konpromisoa aldi bateko gaikuntza sisteman erregistratuta egon behar da.

1.2. Baldintza teknikoak:

Elektronikoki izapidetzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa esteka honetan dago eskuragarri:
http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/es/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/es_02/requisitos_tecnicos.html

1.3. Lizitazio elektronikoari buruzko gorabeherak edo zalantzak argitzeko euskarri zerbitzua: 945016298.

2. Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko era:

Sistema erabiltzeko honako atari honetara jo behar da:

www.contratacion.euskadi.eus

II.- JAKINARAZPEN ETA MEZU ELEKTRONIKOAK.

Jakinarazpen eta mezu elektronikoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez egingo dira. Hona hemen sarbidea: https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/. Jakinarazpenak edo mezuak bidaltzen diren bakoitzean enpresak bidalketari buruzko abisua jasoko du **I. eranskin** honen **gehigarrian** horretarako emandako helbide elektronikoan.

I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPENAK ETA MEZUAK JASOTZEKO DATUAK

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFZ**

	Norbere izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean
	Ordezkatuaren izen soziala:
	Ordezkatuaren IFK:

* Enpresen aldi baterako elkarteen kasuan, eredua egokitu ABEE sortuko duten enpresa bakoitzeko ordezkari guztien datuak gehitzeko.

AITORTZEN DU(TE)

Kontratua adjudikatzeko prozedurarekin (izendapena eta espedientearen kodea) loturako jakinarazpen eta mezuen ondorioetarako:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izendapena	**Erreferentzia kodea**
Hodeiko informatika-zerbitzuak	2023AKM50002

Jakinarazpenak eta mezuak elektronikoki egitearen ondorioetarako datuak honakoak dira[1]:

JAKINARAZPENETARAKO ETA MEZUETARAKO DATUAK

Kalea/Plaza/Etorbidea/...	**Zk.**	**Pisua**	**Aldea**
Udalerria	**PK**	**Probintzia**	
Telefono zenbakia	**Mugikorra**		

Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa:				
Hartzaile izango den pertsona:				
Jakinarazpena/mezua jasotzeko hautatutako hizkuntza:	Euskara		Gaztelania	

1 *Adjudikaziodun suertatzekotan hainbat enpresak enpresen aldi baterako elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa aurkezten badute, helbide bakar bat aurkeztu beharko dute jakinarazpen eta mezuak jasotzeko ondorioetarako.*

II. ERANSKINA.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFZ**

	Norbere izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izendapena	**Erreferentzia kodea**
Hodeiko informatika-zerbitzuak	2023AKM50002

Enpresaren titular gisa/ordezkatzen duen enpresaren izenean duen erantzukizun pertsonalarekin, ondorengoa adierazten du:

1.- Eskaintza aurkezten duenaren **ordezkaritzan** diharduela.

2.- Ordezkatzen duen enpresak administrazio publikoarekin **kontratatzeko gaitasuna** daukala; izan ere, jarduteko gaitasun osoa duenez, ez dago SPKLren 71. artikuluan aurreikusitako egoeretako batean ere.

3.- Badituela baimen/gaikuntza profesionalak, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta profesional eta teknikoa edo, hala badagokio, eskatutako sailkapena.

Bada, kaudimen hori egiaztatzeko:

☐ BAI, beste enpresa baten baliabideetan oinarrituko da, eta badu horretarako idatzizko konpromisoa.

☐ EZ da oinarrituko beste enpresa baten baliabideetan.

4 - Atzerriko enpresa bat da:

	BAI, eta espainiar jurisdikzioaren eta auzitegien mende jartzen naiz, eta uko egiten diot egokitu ahal zaidan atzerriko jurisdikzio foruari.

	EZ

5.- Isilpekotzat jotzen dituela jarraian adierazitako dokumentuak, informazioak eta eskaintzaren alderdiak, sekretu tekniko edo komertzialei lotuta daudelako: [2]

1.- ……..
2.- ……..
3.- ……..

Honako hauek dira isilpekotasun hori justifikatzeko arrazoiak:

1.- ……
2.- ……
3.- ……
…… ...

Lekua eta data:

Enpresaren izena	*Sinadura*

2 Isilpekotasun adierazpena ez da enpresak aurkeztutako dokumentu guztiei aplikatu beharrekoa, ezta eskaintza teknikoko egiaztapen agiri guztiei ere. Kasu horretan, edo adierazpena behar ez bezala hedatzen baldin bada, kontratazio organoak ebatziko du zein datu eta/edo agiri sartuko diren erantzukizunpeko adierazpenaren barnean. Enpresak ez badu berariaz isilpeko gisa markatu datu edo dokumentu bat ere, ulertuko da aurkeztutako dokumentu eta datuetako bat ere ez dela isilpekoa. Horrez gain, eskaintzak aurkeztutakoan ezin izango dira isilpeko gisa markatu aurkezteko unean hala adierazi ez diren datuak.

III. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFZ**

	Norbere izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izendapena	**Erreferentzia kodea**
Hodeiko informatika-zerbitzuak	2023AKM50002

1. Adierazitako kontratazio espedientearekin lotuta exijitzen diren baldintza eta eskakizunen berri duela, honako **ESKAINTZA EKONOMIKO** hau proposatzen du:

- **Urteko prezioa: …….. €, gehi ……€, BEZaren % 21i dagozkionak. Guztira: ……..…€.**

Kontratuaren xedea gauzatzen duten langileei aplikatuko zaien **hitzarmen kolektiboari buruzko adierazpena**: ……..

Lekua eta data:

Enpresaren izena	*Sinadura*